

EMAKUMEEN ETXEARI BURUZKO 8. HAUSNARKETA-JARDUNALDIAREN AKTA

8/2010 BILERAREN AKTA

Eguna: 2010eko irailaren 24

Ordua: 16:00

Tokia: Donostiako Emakumeen Etxea

BILDUTAKOAK:

- ✓ Emakumeen Etxea Elkarte (1 ordezkaria)
- ✓ Lilaton Taldea (1)
- ✓ Emakumea eta Hiria Foroa (2 ordezkari)
- ✓ Emakumeak eta Hiria Foroa (1)
- ✓ Arrats Elkarte (1)
- ✓ Intxaurrondo. Berri Elkarte (1)
- ✓ Intxaurrondo Berri Elkarte eta Emakumeak eta Hiria Foroa (1)
- ✓ Mujeres del Mundo Unidas (1)
- ✓ Arantzazu Etxeko Andreen Elkarte (2)
- ✓ EHUko Giza Kontseilua (1)
- ✓ Dandai (1)
- ✓ Emakume Bananduen Elkarte (1)
- ✓ Garraldi Elkarte (2)
- ✓ LAB sindikatua (1)
- ✓ Bilgune Feminista (1)
- ✓ Farapi (1)
- ✓ Lagunak Elkarte (1)
- ✓ ASADE (1)
- ✓ Hizkuntz Normalkuntza, Berdintasun eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria (1)
- ✓ Zinegotziaren aholkularia (1)
- ✓ Berdintasun saila (4 ordezkari)

Zinegotziak, bildutakoei ongietorria eman ondoren, 2 pertsona berri aurkezten ditu, eta Donostiako Emakumeen Etxean – Berdintasun Sailean- izango duten lana zehazten du.

1. Aurreko hausnarketa jardunaldiaren balorazioak

Ezer baino lehen, azken hausnarketa jardunaldiko ebaluazioen emaitzak azaltzen dira.

2. Azken jardunaldira arte hartutako erabakien errepasoa.

Berdintasun Saileko Teknikari batek orain arte hartutako erabakien errepasoa egiten du. Lehenengo eztabaida hitzarmenen eta Kogestio Organoaren inguruan gertatzen da.

Hitzarmen estrategikoak sinatzerako garaian, 3 aldeek sinatu behar dutela adosten da, hau da, Udaleko ordezkariak, Emakumeen Etxeko Elkarteko ordezkariak eta hirugarren instituzioaren ordezkariak.

7. Hausnarketa Jardunaldian egon ez ziren Emakumeen Etxea Elkarteko hainbat kidek bertan adostutako Kogestio Organoaren osaera zalantzan jartzen dute, errepresentatibitatea eta aukera berdintasuna bermatzen ez direla esanez. Adostutako osaera honakoa zen: 3 Udaleko ordezkari eta 3 Emakumeen Etxeko Elkarteko ordezkari (hauetarik 1 Foroko kidea izango da, eta beste bat Kontseiluko kidea) izango direlarik. 7. Jardunaldiko parte hartzaileek esplikatzeko erabaki hori luze eztabaidatu zela eta elkarteetako ordezkariak talde bakoitzak izendatuko zituela (Elkarteak, Kontseiluak eta Foroak), urte bateko baliozkotasunaz.

Eztabaidatu ondoren, 7. Jardunaldian erabakitako osaera mantentzea adosten da, ordezkariak nork izendatuko dituen zehaztu gabe.

Aurrera eraman beharreko gaiak zeintzuk diren komentatzen dira. Batzordeak osatu beharra, alde batetik Kogestio Batzordea (6 kidek osatuko dutena), Ekintza eta Zerbitzuen Batzordea eta Komunikazio Batzordea.

3. Okendo eta Villa Soroaren inguruko informazioa.

Berdintasun Saileko ordezkari batek Okendo kaleko egoitzaren obren berri ematen du. Irekierarako, ez da data zehatzik ematen. Bai zehazten da, 2010eko Urrian- Azaroaren lehen astean zehar izango dela, eta hiru pausotan bideratuko dela: lehenik, Berdintasun Saila kokatuko da, bigarrenik, inaugurazio festa eta hirugarrenik, zerbitzuak ahalbideratzen joango dira.

Honekin batera, aurrera eraman beharreko gaiak zehazten dira:

- Egokitze lanak bukatzea (itxiera, margotzea, igogailuaren egokiera,...)
- Materialak iristea eta egokitzea (mahaiak, aulkiak, armairuak,...)
- Pausoka eta ziurtasunez espazioaren egokiera eta gureganatzea gauzatzea

Zinegotziak, Villa Soroa egoitzaren inguruko gestioak aipatzen ditu. Soroa Egoitzaren moldaketa eta gureganatzea lortzeko, aurrera eramaten ari diren pausuak azaltzen ditu:

- Erakunde ezberdinekin sinatzeko edo sinatzen ari diren hitzarmenak zerrendatzen ditu
- Denbora epeak eta pasa beharreko tarteak aurreratzen ditu (urte bete)
- Hitzarmenen bidez, Finantziazio iturrien lanketa: Kutxa Fundazioa, Euskadiko Kutxa, Eroski Fundazioa, Eroski, F.C.C.,...

4. Lan Batzordeak eta Zerbitzuak

Berdintasuneko teknikari batek, Emakumeen Etxearen funtzioak, lan egiteko modua (metodologia), zerbitzuak, proiektuak, aktibitateak eta eremuen praktikotasunaz aritzen da. Ondoren, Etxean emango diren zerbitzuak azaltzen dira:

“ASESORAMIENTO A MUJERES MIGRANTES”:

- Farapin ordezkariak “*diskriminazioa*” eta “*2. Mailako hiritarrak*” bezala izendatuak izatearen ezegokitasuna azpimarratzen du. Esaldiaren aldaketa edo egokiera eskatzen da, esanahia zabaltzeko (“*mujeres en exclusión social y en riesgo de exclusión*” eta egokitu diren aktibitate eta tailerrak bideratzeko garaian puntu hau kontutan hartzeko eskaera luzatzen du partaide batek.

Lortutako adostasun puntuak ondorengoak dira:

1. Emakume inmigranteei zuzendutako zerbitzua izendatzerakoan esanahia zabaltzea: “*mujeres en exclusión social y en riesgo de exclusión*” (Pág.11 Aurkezpena 100924)
2. Egokitu diren aktibitate eta tailerrak bideratzeko garaian, diskriminazio eta aurre izendatzearen arriskua kontutan hartzea.

5. Komunikazio planaren proposamena

Komunikazio planaren ekimen zehatzak eta helburu orokorrak aurkezten dira.

Etxearen izenaren inguruan jasotako iritzi ezberdinak mahai gainean jartzen dira: “etxea” hitza da arazoak sortzen dituen. Emakumea, historian zehar, beti ere etxearekin lotua izanaren zama gogoratzen duela diote hainbat kideek. Logotipo eta izenaren lehiaketa bat proposatzen da, egoitzaren identitatea bermatzeko helburu pean, eta orain arte, izaera honetako lehiaketen ikusmira eta iritzi ona kontutan hartuz.

Taldeen partaidetza eskatzen da lehiaketa horren sortze eta bermatze prozesuak aurrera eramateko. Proposamenenaren ongi etorria azpimarratzen da. Iraganean, aurrera eramandako lehiaketa ezberdinetan gauzaturiko akats eta oztopoak gogoratzen dira, eta hauek ikasgai izan behar direla, alegia. Izenaren aurkezpen ofiziala, 2011 urteko Martxoak 8aren inguruan gauzatu den festan aurkeztea proposatzen da. Hainbat partaideek berandu izatearen iritzia adierazten badute ere, ontzat hartzen da proposamena azkenean.

Ontzat ematen dira, komunikazio planari buruz, aurkezturiko proposamen guztiak.

6. Emakumeen Etxeko aurkezpen-inagurazio festarako proposamena

Aurkezpena aurrera eramateko bi-hiru momentu ezberdin zehazten dira:

1. Okendon sarrera eta inagurazio festa: Urria eta Azaroa bitartean (irekia).
Emakumeen Etxeko Elkartea, Emakumeak eta Hiria Foroa, Emakumeen Kontseilua eta Donostia Udaleko Berdintasun Atalaren arteko lankidetzaz antolatu eta koordinatuko da.
2. Aurkezpen instituzionala: Instituzio eta erakunde zehatzei gonbitea luzatuz, bideraturiko inagurazio ekimena (Abenduan).
3. Izen berriaren aurkezpena eta logotipo lehiaketari hasiera ematea: Martxoak 8aren inguruan.

Emakumeen Etxea Elkartearen ordezkariak, Inagurazio Festarako prestakizunak zerrendatzen ditu eta data bat zehazten du. Udaletik data hori guztien artean adosteko beharra azpimarratzen da. Egokitze obrak bukatzerako, inagurazio bakarra eta bateratua egitea adosten da.

7. Hurrengo hiru hilabeteetarako ekintzak

Ekintza eta Zerbitzuen Batzordearen konposaketa aurkezten da:

- Donostiako Udaleko Berdintasun Atala
- Emakumeen Etxea Elkartea

Ekintza eta Zerbitzuen Batzordeko funtzioak zehazten dira: aktibitate programa eratzea da funtzio nagusia. Berdintasun Sailak hainbat ekintza proposatzen ditu urria-abendua hiruhilabeterako:

- Donostiako Udaleko II. Berdintasun Planaren inguruan, udal barruko langileei eta aurrez aurreko arretan lan egiten duten langileei zuzendutako ikastaro saioak bideratuko dira.
- Azaroak 25eko ekintzak.
- Biltzenek eskainitako formazio saioak generoa eta kultura-artekotasunaren inguruan.

8. Instrukzioa eta ondoren eman beharreko pausuak

Saioaren bukaera aldean, Abenduan, aurrera eramango den 9. Hausnarketa Jardunaldietan eztabaidatuko den Instrukzioaren zirriborroa banatzen da. Oraindik egokiera juridikoa eta elkarteen irakurketa aurretik du dokumentuak.

Instrukzioa lantzeko prozedura aurkezten da:

1. Irailak 24a eta Urriak 25a bitartean, dokumentua irakurri eta alegazioak aurkezteko epea.
2. Urriak 29an, Berdintasun Sailak alegazioen laburpen bat bideratuko die elkarteei.
3. Abenduak 10ean, 9. Hausnarketa Jardunaldia egingo da alegazioak eztabaidatu eta Instrukzioa adosteko.

Bilera amaitutzat ematen da 20:00etan.